

**BEGI BISTAN DAGOENA EZ UKATU,
EUSKALTZALE GUZTIAK ALKARTU**
(«Zakurrak non mina, han mihia»ri erantzuna)

Luis Baraiazarra euskaltzale finak 1988.eko «Karmel» aldizkariaren 4. zenbakian idatzitako «Zakurrak non mina, han mihia» lanari erantzutera nator. Bertan azaltzen dana egia da, baina behar bada, ez egi guztia, bereziki «euskeraren aldeko burruka» izenburupean agertzen dana. Lan horretan euskeraren egoera larria zalatzen da, eta horren errudun politikariak dira eta politikariari buruzko eritzi gogorak botatzen ditu; bestalde eta behar bada honen ondorioz «demokrazia delako hau ez zaigu baterc sinisgarri...» ondorioa agertzen dau. Guzti honen aurrean zeresanik badago: politikarien hutsuneek ezin dabe edo ezin beharko leuke egitura politiko bat ez sinesgarritzat bihurtu, eta ez noa ni hutsuneak ez dagozela edota demokrazia hau ezinhobeia danik defendatzera, baina begi bistan dagoana ere ezin da ukatu.

Euskal agintariak egiten ari diren lana, euskeraren arazoan jakina, kritikatzeta zilegia da, zirikatzea ere bai, eta kritika eta zirikatze horrek laguntzeko eta alkarlanerako badoaz beharrezkoa eta eskergarria gainera; eta era berean gauzak ondo egiten direnean, ahaleginak eta emaitzak eskeintzen direnean ontzat hartzea eta txalotzea bidezkoa da.

Gaur egun euskerak inoiz izan ez dituen baliabideak ditu eta azkenengo 10 urteetan, Autonomi Estatutua eta zehatzago

Kontzertu Ekonomikoa berreskuratu zenetik, euskeraren alde inoiz baino diru multzo handiagoak erabili dira eta hor dagoz lekuko euskal erakundeek sortutako HABE, EITB, bultzatutako Hezkuntza sistema eta Herri Ardularitzaren euskalduntzea. Lau zutabe honeek orain 15 urte, euskaltzale guztien ametsetan egozan eta gaur egun errealtate bihurtu eta bihurtzen ari jakun ametsa da. Eta zer esanik ez erakundeen laguntzaz egiten ari diren aurrerakadak: Euskaltzaindiaren bizitza indartu, Aurten Bai alfabetatze kanpaina, Eguna, Hemen eta beste komunikabide (Karmel, bera ere), bertsolaritza mundua, liburuen argitalpenak, ikastolaren dohaintasuna, euskalduntzeari laguntzak, e.a.

Ni ez noa arlo honetan luzatzen baina guzti hori hor dago, zihuraski baegoan hobeto egiterik eta hutsuncak salatu behar dira baina laguntzeko bidean.

Luis Baraiazarraren eritziz, «euskeraren zuzpertzzea» herri fin eta leialaren lepora etorriko da, «politikari eta gorbetadun jaun ohoretsu horreek euren eztabaida eta hitzaldi antzuetan demokrazia plantak egiten ari diren bitartean». Nire uste apalcan horrelako eritzi bat gogorregia da, ez euskerak herriaren beharra daualako, agintariei buruz egiten dan kritika gogorregiagatik baino.

Nik ez dakit nortzuk diren aipatzen diren «politikari eta gorbetadun jaun ohoretsu horreek», nik politikari euskaltzale batzuk ezagutzen ditut, eta zer esanik ez, euskaltzaleak ez direnak egongo dira. Nik ez dot uste politiko nazenik, herri bateko zinegotzi bat naz eta nere alderdian ardura batzuk ditut, eta gorbetea erabiltzen dot baina ez dot uste edo behintzat ez neuke gura, inondik inora, nire gorbatearen morapiloak nire euskaltzaletasuna ito dagianik.

Amaitzeko, argi dago gure euskerarentzat herri ekintza beharrezkoa dela eta erakunde eta agintarien ekintza ere bai. Ez ditugu behar ez agintari erdatzalerik ezta euskeraren aldeko beharrezko diren ekintzetara: Ibilaldia, Kilometroak, etab. (erakundeen laguntzaz egiten direnak, jakina) bakarrik joaten direnak,

euren *paskuako* betebeharra balitz bezala baina slogan barzuk izan ezik inoiz euskeraz ezer gehiago esan ezta esateko benetako borondaterik ez daukienak.

Euskeraren zuzpertzeta eguneroko lanaren ondorioz etorriko da baina guztioná, erakunde, agintari eta herritarrena. Alkarlanak salbatuko gaitu eta ziur nago alkarlan horretan Luis Baraizarra eta ni bat gatozela.

Mikel Etxebarria Etxeita (Zornotza)